

Heriotzaren trikimailua eta tratua

Jaime Altuna Ramírez

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

jaimealtunaramirez@gmail.com

Josu Ozaita Azpiroz

Ikerlari independentea

Laburpena: Artikulu honetan heriotzarekiko hurbilketa soziala eta kulturala egin nahi diogu heriotza elementu zentralizat duen egungo ospakizun zehatz baten azterketaren bidez: urriaren 31n haur eta nerabeek ospatzen duten Gau Beltza, Arimen Gaua edo Halloween izeneko jaia, hain zuzen ere. Festa horretan iluntasuna, beldurra eta heriotza oso presente daude eta elementu horiek guztiak oso erakargarriak dira gaztetxoentzat. Haurren ekimenez sortzen ari diren jai berritu horiek heriotza eta beldurra esperientzia sozial, kolektibo eta partekatu gisa bizitzeko aukera eman dezaketela proposatu nahi dugu. Egungo gizartean heriotzarekin harremana izateko edo ez izateko erak nekro-tanato-politika neoliberalaren parte ere izan daitezkeelako eta, ondorioz, jaiak eta erritualak birsortzea politika horiei aurre egiteko modua bihurtu.

Hitz gakoak: Heriotza, Gau Beltza, haurtzaro eta nerabezeroaren etnografia, jaiak.

Sarrera

Heriotza bizidun guztien patua da, baina, era berean, nahiko egitate ezezaguna eta misterioz betea ere bada. Hori dela-eta, gizarte eta kultura bakoitzak hainbat diskurtso, uste eta ekimen garatzen ditu bai hiltzea eta bai haren ondorioak modu kolektiboan kudeatzeko (Caycedo, 2007). Artikulu honetan, heriotzarekiko hurbilketa soziala eta kulturala egin nahi izan diogu egungo ospakizun zehatz baten azterketaren bidez: urriaren 31n haur eta nerabeek ospatzen duten Gau Beltza, Arimen Gaua edo Halloween izeneko jaia, hain zuzen ere. Festa horretan iluntasuna, beldurra eta heriotza oso presente daude eta elementu horiek guztiak oso erakargarriak dira gaztetxoentzat.

Ankulegi 23, 2022, 13-30

Fecha de recepción: 09-05-2019 / Fecha de aceptación: 24-10-2020

ISSN: 1138-347-X © Ankulegi, 2022

2016an hasi ginen jai horren inguruko ikerketa etnografikoa egiten¹. Behaketak, elkarrizketak eta talde-etzabaidak egin ditugu ospakizun hauen protagonistak diren haurren bizipen, diskurtso eta gogoetak bilatzeko, eta baita adinekoen haurtzaroko kontakizunak jasotzeko ere. «Bizitzaren ertzetan daudenen»² hausnarketen bidez ospakizun hauetan egon diren aldaketetan murgildu gara: umeen egungo jaietan eta zaharren haurtzaroko arimadun kalabazen errituetan. Era berean, hildakoekin eta heriotzarekin dugun harremanaren gizarte-bilakaerari hurbiltzeko aukera izan dugu; testigantza horietan heriotza oso ikusgai zen testu-inguru batetik, beldurrez begiratzeko zaion gizarte batera pasa garela ikusi dugu, heriotza bera ukatzen dugu eta hitza bera aipatzea ere saihesten dugu, ikusezin eta tabu bilakatu den arte. Jaso dugunaren arabera, egungo isiltasun eta tabua areagotu egiten da haurrekin; ez da lasaitasunez jorratu daitekeen gaia, aldiz, urduritasuna eta deserosotasuna sortzen du eta ezkutatu egiten baita.

Ikerketa etnografiko horretatik abiatuta, beraz, haurren ekimenez sortzen ari diren jai berriak horretan heriotza eta hildakoak nola azaldu izan diren eta nola agertzen diren ala ez azaltzen saiatuko gara eta, bukatzeko, hurrengo proposamena aurkeztuko dugu: jai horiek heriotzarekin eta hildakoekin, hemen eta orain, (ez) dugun harremana berreraiki-

¹ Eibarko Udalak eta UEU-k emandako 2015eko Juan San Martin Bekari esker garatu genuen «Itzalitako kalabazen berpiztea. Arimen Gau, Halloween eta Gau Beltzaren haur-ospakizunen ikerketa etnografikoa» izeneko ikerketa etnografikoa.

² Adineko pertsonak eta haurrak dira «bizitzaren ertzetan daudenak». Esamoldea Bernardo Atxaga idazleari hartu diogu Atxaga.eus blogean 2007ko abenduan idatzitako «Munstroak» izeneko testutik (<<https://www.atxaga.eus/blog/1255000438>>).



Baliarraingo Gau Beltza.
Egilea: Josu Ozaita (2018-10-31).

tzeko edo berdefinitzen laguntzeko egokiak izan daitezkeela.

Samhainetik Halloweenera: negu hasierako heriotzaren jaiak

Samhain³ festa zeltiarra da, hain zuzen ere, Halloween, Gau Beltza edo Arimen Gaua izenarekin ospatzen diren jaien jatorria. Aintzinako Europa osoan zehar hedatu zen ospakizun horrek udaren amaieraren eta neguaren hasieraren arteko mugarrira finkatzen zuen: urteko aldi «hilaren» hasiera, non lurrak eta bizidunek lo egiten zuten, udaberriaren zain. Hiru egunetan zehar hainbat festa eta ospakizun egiten ziren, hildakoak bizidunen tokira itzultzen zirela ospatzeko.

Margarita Barrera-k (2003) egindako azterketa historikoaren arabera, hiru egun eta

³ Irlandako Samhain festa *samon* hitzetik dator: «uda amaiera». Hala agertzen da galiar jatorria eta zelta herrialdeen tradizioaren baitako Coligny egutegian.

hiru gau irauten zuen festak, eta Samhain «urteen arteko azken eguna» zen; urteko azken egunaren eta berriko lehenaren tartekoa, «ez-denbora», alegia: hilen arauak abolituak izan zitezkeen aldia, kaosaren agindupean unibertsoaren ordena naturala ezbaian jarri zitezkeen unea. Hildakoak bizidunen aldera itzultzen ziren, beren aurreko bizitokira, eta iraganeko, gaurko eta etorkizuneko mugak deseginez egun aproposa zen urte berrian etorriko zena igartzeko (Barrera, 2003: 28).

Beraz, heriotzarekin aspalditik lotutako jaia dirudi, hildakoen arimak etxera itzultzeko egunak baitziren (Frazer, 1995). Negua gerturatzean, arima hoztu eta gosetiek baso eta soro biluztuak utzi eta etxearen goxotasuna bilatzen zuten, sutan berotu eta familiartekoen ongi etorriarekin sukaldean egoteko. Urtean zehar hildako familia-kideentzat platera jartzea ohikoa zen (Barreira, 2003: 31). Euskal Herrian eta Pirinioetan antzeko ospakizunak jaso izan dira. Izpirituek edo arimek ere jaten zutela uste zen eta, hil ostean ere premia berarekin segitzen zuten, janari-edanekin batera lurperatzen ziren eta, ofrenda gisa, ogia eta argiak ipintzen zitzaizkien (batzuen artean, 1995a). Baztanen, adibidez, familietako etxeoandreak igandero joaten ziren hilobira arimen ogia otar batean sartuta. Andorran, aldiz, Domu Santu egunean, hilobien gainean egiten dute otordua familiartekoek (batzuen artean, 1995a: 39).

K.a. I. mendean, erromatarren armada Europan zehar zabaltzearekin batera, kulturalki ere hedatu ziren. Bertan bizi ziren herrien ohiturak bereganatu, moldatu eta aldatu zituzten, ondorioz. Samhain festari dagokionez, badirudi erromatar kulturaren udazkenean ospatzen zen Pomona jainkosaren festarekin uztartu zela. Festa horretan

haziak eta fruituak bedeinkatzen ziren, eta jasotako uzta eskertzen zen (Rogers, 2002). VIII. mendean Gregorio III.a, Eliza Katolikoaren buruak, kristau martirien eguna azaroaren 1ean ezarri zuen, Samhain festaren egun berean. Geroztik, kristau egutegian ospatzeko egun garrantzitsu gisa finkatu da, Gabonekin eta Aste Santuarekin batera. Orduan aldatu zen egunaren izena ere: All Hallow's Eve edo Santu Guztien bezpera. Aurrerago, Halloween izen laburtua hartu zuen (Arana, 2004).

XVIII. mende amaieran, migratzaile ingelesek eta irlandarrek eraman zuten Halloween ospakizuna Ipar Amerikara. XIX. eta XX. mendean zehar, aldiz, «amerikar identitate berriaren» tradizio propio gisa finkatzeko eta batasun kultural bat sortzeko elementu garrantzitsua bihurtu zen (Barreira, 2003: 189). Egun, Ameriketako Estatu Batuetako urteko egutegian garrantzia duen ospakizuna da, Pazko ospakizunak edo Esker Emate Eguna bezala. Halloween ospakizuna aztertuz esan dezakegu etengabe berritzen eta finkatzen den tradizio kulturala dela baina, era berean, kultur ekoizpenen bidez, mundura ere indarrez zabaltzen ari dela⁴ (Barrera, 2003: 189).

Oihal kristau eta kapitalista batek estaltzen duten jentil-jai hau, beraz, oso aspaldikoa da eta, aintzinako formak moldatzen joan badira ere, jatorrizko helburuari eta logikari nolabait heldu diote: urteko aldi hilaren etorreraren berri ematea, hildakoak

⁴ 1970eko hamarkada amaieran eta 1980ko hamarkadan kultur ekoizpen asko zabaldu ziren Halloween inguruan. Beharbada, ezagunena 1978an estreinatu zen *Halloween* izeneko filma izan zen. John Carpenter-ek zuzendutako film horrek abiatutako bideak eragina izan du hurrengo belaunaldietan urriaren 31n ospatzen diren jaien sinbologian.



Haurrak etxez-etxe Gipuzkoako Elgeta herrian. Egilea: Josu Ozaita (2016-10-28).

gurtzea, hildakoak gogoratzea edo bizidun eta hildakoen arteko harremana ospatzea, alegia.

Euskal Herriko atzoko eta gaurko arimen jaiari buruzko ikerketa etnografikoa

Halloween festak, azken bi mendeetan, joan eta etorriko bidaia egin duela esan dezakegu: Europatik Amerikara joandako migratzaileek eraman zuten eta orain lurralde haueetatik indarberritua itzuli zaigu. Azken bidaia horretan, jaiak ekarri duen «mozorroak» eztabaidak eta zalantzak piztu ditu Euro-

pako toki ugarian eta horrek agerian utzi du festa honek duen konplexutasuna (Foley eta O'Donnell, 2009).

Herrialde batetik bestera egoera aldatzen bada ere, leku askotan Halloween ospatzearen aurkako iritziak agertzen dira interes kultural, politiko, erlijioso edo hezitzaileen izenean. Bestalde, festaren alde ludikoa azpimarratzen dutenen usteak ospakizunetan parte hartzeko gogoz dauden haur eta gazte askoren nahiarekin bat egiten dute. Diskurtso eta praktika anitz horiek guztiek udazkenero errepikatzen diren eztabaida konplexuak sortzen dituzte. Batzuetan, jaiak ospatzeko haurren autonomia defendatzen dutenak eta Halloween ospakizunetan

hauen jokabide txarraren aurka agertzen direnen arteko tirabirak dira eztabaidaren oinarria. Zenbaitetan, nazio identitatea eta globalizazioaren arteko ardatza azpimarratzen da. Besteetan, inauteria zentzu espiritualaren eta sakratuaren galeraz keaxtzen direnen ahotsak alderdi ludikoa azpimarratzen dutenen iritziekin talka egiten dute⁵.

Azken bi hamarkadetan, eztabaidak sortu dira European: Katalunian, Suedian, Alemanian, Errusian, Herbehereetan, Eslovenian... (Foley eta O'Donnellen, 2009). Azken urteetan, gainera, azaroaren hasierako ospakizunetan tradizio lokalak berreskuratzeko proposamenak indartzen ari dira; horren adibide dira Galizian Samaín jaia, Katalunian La Castanyada edo Irlandan bertan garai bateko jai honen lekuan lekuko ohiturak mantentzeko egiten ari diren saiakera⁶.

Euskal Herrian ere, XXI. mende berrian sartzarekin bat, telebistan, ingeles klaseetan, edota jolas parke erraldoietan Halloween zabaldu zen, kalean haurrek ospatzen hasteraino. Halloween Euskal Herriko jaien parte bilakatu zen, gehienetan haurrek bere kabuz antolatuta. Ez zuten helduen laguntza handirik behar izan hura burutzeko: 7-12 urte arteko haurrak elkartu, mozorrotu eta etxez-etxe hasi ziren goxoki eskean. Baina, hainbat heldurengan, eta gizartearen orokorrean, deserosotasuna sortzen zuen ospatzeak berak. Eta halako batean, adine-

koen testigantzak agertzen hasi ziren⁷. Gure ikerketan hainbat testigantza jaso ditugu, ahaztuta zituzten oroitzapen haiek berreskuratzeko. Lesakan (Nafarroa) 1920 urtean jaiotako emakume honek, adibidez, hala kontatu zigun:

Mutikoak ebatsi kalabazak landatikan, egin begiak, sudurra, hustu eta han sartzen zuten kandela, toki guztitan, estrategikoki paratzen zuten kanposantu bidean... elizara agudo joateko bidezidorretan. Eta gu arrasoriotik atera orduko «hara sorgiñal», ta gu lasterka. [...] Edozein egunetan ebai. Kalabazan denboretan edozein egunetan, landatik hartzen zituzten.

Nafarroako Unanu herriko gizon honek ere antzeko testigantza eman zigun. 1940 urtean jaio zen eta haurtzaroko oroitzapen haiek kontatu zizkigun:

Ordun iten zan maiza txuritu —zuek esango dezue *artoa*—. Guk maiza. Ta korruan maiza txuritzen ta... arbia hartu ta hustu, ta kalabera jarri, ta ordun holako papera gorria jarri, ta halako kalabera gorria, gero argie jarrita. Hura eoten zan han, baginun kuarto bat, zea, maiza —zuek *artoa*—, txuritzen ari ginea, hantxe jarri ta katxondeo, familia guztia. Ordun kostunbrea zan etxe gehienetan, ar-bien garaien. Batzuk lehioan de jartzen zuen, lehioan ikusi ta aaaaa! Ta gazte guztiak hori ikustea.

Zur eta lur. Harrituta. Ohitura oso zabaldua zen Euskal Herrian kalabazei edo arbiei aurpegi forma ematea, duela hamarkada gu-

⁵ Egia esan, Halloween festaren inguruko eztabaida hauetako batzuk ez dira berriak. XIX mende amaieran EAB-tako hirietako kaleetan jaia birsortu zenetik zalantzan jarri izan da ospakizunaren «moralitatea» eta ahalegin handiak egin dira «etxekotzeko» (Lehern, 1998).

⁶ Irish National Folklore Collection bidez Halloween edo Oíche Shamhna inguruko jolasak, esarak edo ohiturak zabaltzen dituzte: <<https://www.duchas.ie>>.

⁷ Ikusi, adibidez, Oier Araolazak 2012an idatzitako hau: <<https://eibar.org/blogak/oier/2012-halloween-euskal-festa-bat-da-iv>> eta Itziar Diaz de Ultzurrunen iritzi artikulua: <<https://www.noticiasdenavarra.com/opinion/2015/10/29/halloween-oportunidad-2834570.html>>.

txi arte bizirik mantendu dena. Villabonako (Gipuzkoa) 1929an jaiotako emakume batek kalabaza argidun haiek sortzen zuten beldurra adierazi zigun:

Nire anaia eta bere lagunek kalabaza hustu eta aurpegi forma ematen zioten, bi begi sudurra eta ahora zulatuz labanarekin. Gero, barruan kandela jartzen zioten. Izugarritzko inpresioa egiten zuen, artasoroetatik ateratzen ikusten genituenean, uuuuuu eginez. Kandelaren argiarekin, aurpegia behetik gora argitzen zen eta inpresio handia egiten zuen artasorotik ateratzen ikustek. Ni nintzen beldurtiarekin etxetik ere ez nintzen aterako! Neskek ez genuen horrelakorik egiten, mutilek bai. Animen egunean egingo zuten hori seguraski, baina negu hasierako garaian gogoratzen dut orokorrean, urria eta azaro aldera, txukinak biltzerako garaian artasoroetan.

Jasotako testigantzen arabera, Euskal Herrian duela hamarkada batzuk kalabazekin jolasten zirela ondorioztatu dugu; nahikoa zabaldua zegoen ohitura zela. Udazkenean egiten zen jolasa zen, ez soilik Arimen Egunaren bueltan, baina lotura zuzena zuen egun horretan ospatzen ziren bestelako heriotza errituekin ere. Heriotza oso presente zegoen egunerokotasunean, oso ikusgai zen, eta egutegian hilak oroitzeko zegoen jai nagusiaren hertzetan haurrek egiten zituzten erritu ludiko horiek heriotzarekin eta arimekin erabat lotuta zeuden. Beldurrez betetako giro sozial hartan, udazkeneko arimadun kalabazek beldurra sortzen zuten. Ikara sortzen zuten arimak bizirik zeudelako, bizirik sentitzen zituztelako. Eta, beharbada, jolas haiek egunerokotasunaren beldurrei aurre egiteko ihesbideak ere baziren. Baina haur praktika haiek erabat desagertu ziren belaraldi berrien belarrietara iritsi gabe, nahiz eta azken hamarkadan testigantza horiek ezagututa, eta bizipen eta istorio haiei for-

ma berriak emanda, ospakizun berriak sortu diren.

Horregatik, gure ikerketa etnografikoan adineko gizonekin eta emakumeekin atzera begira egindako bidaia egin ondoren, jaietan murgildu ginen, eta Euskal Herriko geografian zehar bidaiatu genuen egungo hainbat ospakizunetan murgiltzeko. Aniztasuna topatu dugu; jai batzuk iluntzean ospatzen diren mozorro erronda inprobisatu samarrak dira; beste batzuk, aldiz, herri osoko haurrak mugiarazten dituzten oso ondo antolatutako jaiak, musikaz, antzezpenez eta mozorroez beteak. Egunez egiten diren eske-erronda kolektiboak ere behatu ditugu⁸. Ikerketa lana diseinatzerakoan espero genuena baino aniztasun handiagoa aurkitu dugu. Artikulu honetarako urriaren 31n haurrek parte hartzen duten ospakizunak soilik ekarri ditugu, horietan agertzen baitira nagusiki heriotza eta hildakoekin erlazionatutako elementuak. Azken hiru urteetan horrelako jaiak ospatzen dituzten herrietan aritu gara behaketak egiten: hamabost behaketa beste bezainbeste herritan⁹. Horietaz gain, hogeitau elkarrizketa sakon eta lau talde-eztabaida ere egin ditugu¹⁰.

⁸ Azaroaren 1ean Nafarroako herri txiki askotan aspalditik datorren eta mantentzen den jai da. Haurrak talde bakarrean elkartzen dira eta etxez etxe ibiltzen dira, esaera bat esanez eta goxokiak eta fruitu lehorrak jasoz. Jaiaren izena eta erabiltzen dituzten esaerak anitzak dira. Gure ikerketarako egin genituen behaketetan, adibidez, izendapen hauek jaso genituen: Etxaurin Txandulo-mandulo, Paternainen eta Arraizan Txinurriak eta Etxaurin Tririti-tarrata.

⁹ Herri hauetan izan gara: Elgeta, Eibar, Mutriku, Donostia, Oiartzun, Zumarraga, Urretxu, Iruñea, Villabona, Bergara, Pasaia San Pedro, Lekeitio, Segura, Pasaia San Juan eta Aretxabaleta.

¹⁰ Guztira 31 lagun elkarrizketatu genituen: 11 adineko, 6 heldu eta 14 haur. Haurren elkarrizketak binaka edo hiruak egin genituen. Eztabaida-taldee dago-

Hiru multzotan bereizi daitezke gaur egun ospakizunei ematen zaizkien formen eta izenen arabera: Halloween, Arimen Gaua eta Gau Beltza. Hona hemen bakoi-tzaren azalpen laburra:

- Kaleetako Halloween festak eta iluntzeko eske-errondak: Estatu Batuetako ohiturekin lotu izan den jai da eta he-dabideetan presentzia handia du. Euskal Herriko hainbat haurrek izen hori erabiliz bere praktika ludikoa burutzen dute. Mozorrotzea eta eskean aritzea dira ezaugarri garrantzitsuenak. Urriaren 31ko arratsean egiten da. Mozorroturiko lagun talde txikiak eskean aritzen dira herriko komertzioetan edo etxeetan. Ez du egitarau berezirik, lagun talde txikiak autonomoki antolatzen baitute norberarena. XXI. mende hasieratik bere praktikak indarra hartu du Euskal Herriko lurralde guztietako herri askotan.
- Arimen Gauaren inguruan hainbat herrietan sortutako jai berriak: arimek izaten dute protagonismoa urriaren 31n edo data horren inguruan ospatzen den jaietan. Euskal Herrian garai bateko kalabazaren ohiturekin elkarlotzen da. Normalean, herri mailan talde batek antolatzen du eta egitura zehatza izan ohi du (nahiz eta urte batetik bestera aldatzen den). Egitarau moduko bat prestatzen da hainbat jai elementurekin eta, horren baitan, ohikoa da arimak antzezpen baten bidez agertzea. Iluntzean izan ohi da.
- Gau Beltza edo Katu Beltza izenarekin sorturiko jaiak: gauari eta iluntasunari ematen zaio garrantzia. Bestelakoan, Arimen Gauaren antzeko ezaugarriak ditu.

Euskal Herriko usadio eta mitologiarekin lotzen da, eta herriko talde batek antolatzen du. Forma ezberdinak hartu ditzakeen jai hau azken urteotan zabaltzen ari da, nahiz eta, aitzindaria izan zen Mutriku herrian, 90. hamarkadatik ospatzen duten.

Garai bateko heriotza errituak

Itzalitako kalabazak berriro piztu dira, nahiz eta kalabazaren zentzua aldatu den. Lehen, kalabaza jolaserako elementua zen, oso erakargarria bere itxura antropomorfikoagatik, eta, aldi berean, argiteria gutxi zegoen garaian, aurpegi formako kalabaza kandelaren dirdiraz argituta beldurra eragin zezakeelako. Gaur egun, farolak daude iluntasuna argitzeko, eta kalabazek ez dute beldur ematen. Heriotzak, nola ez, gure artean jarraitzen du, baina ez dirudi heriotza modu berean agertzen denik. Horregatik, egingdako ikerketan adinekoek euren haur garaiko heriotza-erritu eta bizipenez galdetu diegu elkarrizketetan, eta haur eta gaztetxoekin gauza bera egin dugu gaurko egoerara hurbiltzeko. Hala, azken hamarkadetako aldaketa eta esperientzia desberdinak jasotzeko aukera izan dugu.

60-70 urte atzera egin dugu eta, bizirik dagoen adinekoen belaunaldi honen bitartez, beste «mundu» batera bidaiatzeko aukera izan dugu. Hamarkada gutxitan aldaketa nabarmenak gertatu dira, eta hau, sekularizatzen ari den heinean, kristautasuna indarra galtzen ari den gizarte baten ispilu da. Iraganaz hitz egin digute adinekoek, lehengoaz, gaurkoa ez denaz. Distantziarekin hitz egin digute askotan, beraien parte izanik, jada beste modu batean sentitzen dutela adieraziz. Kristautasuna ez dute alboratu askok, si-

kionez bi izan ziren, bi helduekin (13 heldu guztira) eta beste bi haurrekin (14 haur guztira).

nesten jarraitzen dute, baina ez haurtzaroko indarrarekin, ez modu imaginario, praktiko eta bizitzeko modu hartan. Beste zenbaitek engainu baten biktimatzat sentitzen direla aitortu digute.

XX. mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan kristautasunak eragin handia zuen Euskal Herriko herrietan, bai sinesmenean eta baita egunerokotasunean ere. Instituzio eta eragile indartsua zen orduko gizartean, apaizaren botere nabarmenak, kontrol sozial, debeku eta beldur tresnatzat hartuta: «Elizak orduan gobernatzen zun jendia [...], dena debekatua zen» (Lesakan 1920. urtean jaiotako emakumea). Bizitzako esparruen gaineko kontrola zuen, bekatuaren zama inguruan, konfesioaren bitartez, norbanakoaren intimitateraino iristeraino. Dantza debekatua zutela oroitzen dute askok, trikitixa edo filarmonika jotzea bezalako gauza xumeak, edota jai egunetan lan egitea. Errezoa zen eguneroko praktika, eta kristau ohiturek markatzen zuten egutegia. Ezin da erabat orokortu, ordea, baina oroitzapen txar bezala kontatu dizkigute hainbat apaiza bereziren inguruko oroitzapen positiboak.

Lurra eta naturarekin lotura zuten erri-tuetan, Eliza Katolikoaren ideologia eta boterea gailendu zen: San Anton, San Blas, Santa Ageda, Aste Santua, San Isidro, San Juan... eta horiekin batera, Domu Santu eguna, azaroaren 1ean, mezaren bitartez hildakoak oroitzeko eguna. Ogia eta argizariak erabiltzen ziren elizkizunetan (Etxebarria, 2003), loreek protagonismoa hartu zuten arte. Hildakoak oroitu eta haien alde otoi egiten zen, hildakoek bizidunen artean zuten presentzia agerian uzteko. William Dougllass-ek 1967. urtean Aulestin egindako *Muerte en Murelaga* ikerketan ondo azaltzen da heriotzaren garrantzia eta errituen presentzia (Dougllass, 2003). Gizarte egiturak

aztertzeko heriotza ikertu zuen ikuspegi funtzionalistaren bidez heriotzak aktibatzen zituen mekanismo sozialak deskribatzen zituen ikerketa honek. Etxekonekoek (bizilagunek) zabaltzen zuten heriotzaren berria, eta eurek ere hartzen zuten parte gaubeilan, senideekin batera. Gaubeila edo gauean etxean zegoen zerraldoaren zaintzaren ondoren, bestelako kristau errituei hasiera ematen zitzaien: hilotzaren kaxa bizkar gainean hartzen zuten lau gizonezko elizarako bidea oinez egiteko: prozesioa. Apaiza aurretik, bi eliz mutil atzetik, eta ondoren gorpua, herritarren aurretik. Bidean, jendea batzen zen (Dougllass, 2003: 56). Gure landa lanean ere, hil aurretiko errituen lekukotzak jaso ditugu; Villabonako (Gipuzkoa) testigantza honetan, adibidez, egunerokotasunean heriotzaren presentzia oso ohikoa zela adierazten da:

Apaiza kanpai txiki bat joz pasatzen bazen kalean, *monajilloekin*, norbait hiltzera zihoan seinale zen. Bidean zihoazela kanpaia entzuten bagenuen, etxetik mantila hartu, buruan jarri eta atzetik joan behar genuen gaixoaren etxeraino.

Edozein egunetan hildakoa espazio publikoan, edonoren begi bistan hilaren gorpua: presente zen heriotza herrietan. Gainera, herrirako bidea ez zen nolana hiko: hil-bidea deitzen zitzaion. Ataungo gure elkarriketa- tuak ere, bide horien garrantzian eta orduko presentzian jartzen du arreta: «Hil-bideak zeuden baserritan, orain galduak zeudek, ezta? Hil-bideak, hilak jaisteko bideak, beti garbi egon behar zian, eta urtero auzolana egin behar huan». Heriotzak ez zuelako noiz etorriko zen abisatzen, beti egon behar zuen prestatuta bideak, garbi. Honetarako bizilagunak elkartzen ziren, eta garbi mantentzeko elkarrekin lana egin behar zen. «Gorpua

igo behar zen, bidezidorretik, karreterarik ez zegoen eta. Han deskantsurako harri bat zegoen, banku baten modukoa, eta han dago gaur egun ere. Kaxa han jarri eta deskantsatzen zen bidean» oroitzen du Villabonako informatzaileak.

Bidegurutzeetan, apaizak aitagurearen errezoa egiten zuen eta, herrira gerturatzearekin batera, Elizako kanpaiak joka hasten ziren (Douglass, 2003: 56). Dilin-dalan, dilin-dalan, dilin-dalan... zabaltzen zen heriotzaren mezua, herri guztiari abisatuz. Soinuaren bitartez heriotzaren berri ematen zen publikoki eta, agur-mezaren ondoren, lurra ematen zitzaion gorpuari. Nahiz eta XX. mendean jada kanposantuak egon, lehenago elizan bertan izaten zuen familia bakoitzak

lurperatzeko eremua, eta zati sakratu horretan oroitzen zuten. Etxe bakoitzak zuen berea, eta hor burutzen ziren hildakoekiko errituak (batzuen artean, 1995a: 41). Hilberriaren etxean urtebeteko lutoa bete behar zen. Gainerako herritarrek, ostera, intentsitate gutxiagorekin, Domu Santu egunean esaterako. Begi-bistaz ikusten zen hildakoa, entzumenaren bitartez entzun (kanpaiak), eta erritu definituak zeuden honekin lotuta. Honekin batera, uste eta sinesmen desberdinek imaginario zabala zuten: gauean oilarrak kukurruku egitea, txakurraren ulua, lurreko oholen kilinka, bele beltzak etxe inguruan ibiltzea, edo kanpaien dilin-dolon oihartzuna... heriotza zetorrenaren seinale ziren (Caro Baroja, 1986). Kristau aurreko

Gipuzkoako Elgeta herriko kaleetan piztutako kalabazak. Egilea: Josu Ozaita (2016-10-28).



sinesmen eta praktiken eragina ere nabarmentzen da, eta sinkretismoaren xede izan zen orduko kristau erlijio hedatuarekin.

Heriotzaren inguruko sinesmen horien guztien artean, bazen garrantzi zentrala zuen elementu bat: arima. Pertsona bat hiltzean gelako leihoak irekitzen zituzten, eta ispiluak eta margolanak estaltzen (Caro Baroja, 1986: 272). Halaber, teilatuko teilaren bat mugitzen zen, arima atera zedin, eta eliza barruko hainbat errituk, kandelak eta ogia erabiltzea adibidez, arimarentzat biderako argia eta janaria irudikatzen zuten (Douglass, 2003: 112). Caro Barojaren ustez, hil-bideetako bidegurutzetan zerraldoa eramatean egiten ziren errezoen bitartez, hildakoaren arima bide onetik bideratzen zen, bide zuzenetik, zerurako bidetik, infernura norabidea hartu ordez (Caro Baroja, 1986: 273).

Arimen sinesmena benetakoa zen; arimak presente zeudela uste zuten. Arimak, gorputzetik ateratako esentzia moduan, hegan egiten zuten. Infernuko edo zeruko bidea hartuko zuen, eta gauez eta toki bakarrietan agertu zitekeen: bizidunak, hildakoak eta hauen arimak elkarrekin bizi ziren. Errespetua zioten arimari, zenbaitetan baita beldurra ere. Honela, bide bazterrean edo iluntzean ager zitekeen, eta kalabaza aurpegi formarekin ikustean ere, arimarekin lotzen zuten hura. Zegaman (Gipuzkoa) 1929. urtean jaioetako andre batek hala kontatu zigun: «Neri harek bildurre ematen ziten, neri beti bildurre. Kalabaza osorik badao ez, baño hola zulokin ta... eske nik entzun det behin baino gehiagotan animak gauez atea eitten ziela, ta holako istorik, argiak ziran batzuk».

Heriotzari bizkar eman nahian bizidun gizartea

Arimek bazuten beren egun propioa egutegian: Azaroaren 2a. Arimen Eguna zen eta elizkizunak izaten ziren elkarrizketatutako adinekoen haurtzaroko kontuetan. Gaur egun, jada, haur gutxik dute egun horren berri, eta ia ez da mezarik ematen arimen eguna ospatzeko. Haur gutxik identifikatzen du Santu Guztien edo Domu Santu eguna hildakoak oroitzeko data gisa: «Ez naiz sartu inoiz hilerrian. Aurretik jendea hilerrira joaten zen garbitzera. Nik Teleberri ikusi nuen egun horretan jendea joaten zela loreak jartzera» kontatu digu Eibarko gaztetxo batek. Arimek ez dute lehen zuten garrantzia edo presentzia. Urri amaierara iristean, haurrek badakite Halloween festa gerturatzen ari dela. Aldatu da egutegia, Santuen eguna markatetik, inauteriak, maiteminduen eguna, amaren eguna, udaberriko oporrak, Halloween, Black Friday... egunak nabarmentzera igaro gara. Kalabaza, arimadun beldur eragile elementu bihurtzen zen baratetik hartuta, hamarkada batzuk beranduago, hamargarren hilabetezko plastikozko sinboloa da. Askoren begietan, Estatu Batuetako jai globalizatuaren ikur bihurtu da.

Aldatu dira egutegiaren edukiak, aldatu dira kalabazaren erabilera eta sinbologiak, aldatu da haur izateko modua. Entzun ditugun bizipen eta kontakizunetan bi garai oso desberdin deskribatzen dituzte eta, kontaktuz horietan, eta ikergaia zentratuta, nabarmentzen agertu da heriotza bera ere aldatu dela. Duela hamarkada gutxi, heriotza presente zegoen egunerokotasunean, eta harekin bizi ziren. Animalien heriotza ere, egunerokotasunean presente zuten, gaur ez bezala. Egun ez dugu ikusten animaliarik hiltzen oster

jateko; kalean ez da prozesiorik egiten herri-tarrak hiltzen direnean. Tanatorioan jartzen da gorpua; eremu intimora eta barru aldera igaro da heriotza.

Hor jarraitzen du heriotzak, baina guk ezkutatu egiten dugu. Haurrak, askotan, hartatik babestu nahi izaten ditugu. Egingdako elkarrizketetan kontaktu digute askotan aiton-amona hiltzerakoan gurasoek seme-alabak ez dituztela agurretara eramaten. Beldurrarekin begiratzen zaio heriotzari Mendebaldean, heriotza bera ukatuz, hitza beraren aipamena eragotziz, ikusezin eta tabu bilakatu arte (Caycedo, 2007). Tabua da heriotza, ez da hitz egiten heriotzaz eta are gutxiago haurrekin. Haur eta gazte-txoekin egindako solasaldietan heriotza izan dugu hizketagai, eta isiltasun luzea, tentsiokoa, sortzen zen bere baitan. Bate-tik, elkarrizketatuak urduri jartzen zirelako. Bestetik, gure deserosotasuna medio. Hala kontaktu zigun, adibidez, Pasaian bizi den 12 urteko haur batek: «Aitaren laguna hil zen, eta bakarrik egun horretan hitz egin genuen. Ez dugu horretaz hitz egiten, zeren hobe ez atera gaia...». Ez da haren inguruan hitz egiten baina hemen dago, hemen jarraituko du. Isiltasunaz inguratu dugu heriotza, baina horrek ez du esan nahi garrantzirik ez duenik. Itxaso Martinek dioen bezala, «isiltzeak askotan isiltzen dugun horri indar gehiago ematea dakar» (Martin, 2016). Ez dago lehen bezala heriotza presente, baina lehen bezainbesteko edo beldur handiagoa diogu.

Hein handi batean sekularizatzen ari den gizartearen, erlijio katolikoarekin loturiko errituek eta ohiturek zuten funtzioen balioetasuna eta eraginkortasuna galdu dute; Iruñeko haur batek katekesia zer den galdetu zigun, horra adibide esanguratsua. Ez da artikulu honen asmoa sekularizazio teorien inguruko

debateetan sakontzea¹¹, baina uste dugu gure ikerketak agerian uzten duela Euskal Herriko gizartearen sekularizazio prozesu bat eman dela XX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera. Heriotzaren inguruko ospakizunei eta errituei buruz jaso ditugun bizipenek eta diskurtsuek argi erakusten dute euskal gizartearen sektore zabal batean ordura arte hegemonikoa zen Eliza Katolikoaren eragina ahuldu dela. Trantsizioko eskenatoki bat bizi dugula esan genezake, agur erritu ikuspegitik umezurtz dagoen gizarterantz. Heriotza inguruan suertatzean, noraezoko egoera batean barneratzen gara, antolatu gabeko errituen bila edota ordura arte erabiltzen zirenak errepikatzen, funtzioa galdu badute ere. Azaroaren 2ko arimen eguna

¹¹ Gure aldetik, sekularizazioa mundu mailan ematen ote den zalantza gure egiten badugu ere, Euskal Herrian Bryan Turner-ek *Religion and Modern Society: Citizenship, Secularisation and the State* liburuan planteatzen duen sekularizazio prozesua eman dela uste dugu: «Fundamentalismo, erlijio nazional eta erlijio publikoen gorakadatik haratago, sekularizazioaren teoria mundu garaikideari aplikatu dakiok, beti ere, erlijio modernoan aniztasunari erreaktiboki begiratuta. Niklas Luhman-ek (1984) erakargarritasun handiko argudioen bidez defendatu duen bezala, sekularizazioak esan nahi du gizarte modernoetan erlijioa, ekonomia eta politikaren arteko banaketa ematen dela. Horrek esan nahi du erlijio-instituzioek eragile desberdinekin lehiatzea esan nahi du (hala nola ongizatearen hornitzaileekin) ongizatearen zerbitzuen banaketan. Erlijioak errealitatearen interpretazioan zientziarekin norgehiagokan aritu behar du, normalean arrakasta handiegirik gabe, erlijioaren autoritate zabalduaren gainbehera eta higadura agerian utziz. Esan nahi du, instituzio erlijiosoak merkatu ikuspegitik ari direla erlijioa saltzeko asmoarekin sekularizaturiko kultura komertzialean, erlijio sinesmenak ideia eta praktika komertzialez blaituta baitaude. Amaitzeko, erlijio kosmologiak gutxi du saltzeko gizakiak unibertsoan duen tokiaz egungo mundu modernoan, non eboluzio teoriak jaun eta jabe diren, fundamentalismoaren eragozpenen gainera» (Turner, 2011: 150).

ere desagertu da, jada jende gutxi sinesten duelako haietan, edo, ez duelako duela hamarkada batzuk zuen presentzia. Eibarren, haur eta gaztetxoek eztabaida talde batean gaia aterata, neska batek esan zuen kateke-sira joaten zela, eta lagun batek jarraian egin zion galdera: «zer izan behar duzu, apai-za?». Jada erlijioak ez du hamarkada batzuk atzerako zentralitatea eta eragina. Arimaren inguruan galdetzean, urrutiratze edo existitzen ez denaren ideiak daude, «den-dena gezurra da. Ikasi genuen giza gorputza eta hor ez dago arimarik».

Aiton-amonak eta biloben artean tarte handia sentitu dugu, bi munduren arteko distantzia. Ohitura, sinesmen eta erritu batzuetatik, beste aro baterako bidea. Lehen-goia desagertu, ahuldu edo berrinterpretatzen ari da, eta ziur aski aurrerantzean erritu berriak sortuko direla, errituek hausnartu eta gure emozioak kudeatzeko balio baitute.

Kalabazak, arimak eta heriotza

Heriotzaren bizipena aldatu da hamarkada gutxitan eta, harekin batera, heriotzarekin harremanetan jartzeko modua eta, era berean, erritu eta praktikak ere. Guk aztertutako festa zehatzetan ere, nahiz eta heriotzaren elementua aldatu ez den, heriotza ospatzeko modua oso ezberdina da.

Duela hamarkada batzuk, gure aitona-amonak kalabazekin ibiltzen omen ziren. Baratzetatik lapurtu, hustu eta, aurpegi forma eman eta kandela barrenean sartu ondoren, bide bazterretan jartzen zituzten jendea beldurtzeko. Euskal Herriko toki askotan zabaldutako praktika zen. Kalabazekin jolasten ziren udazkenean, kalabazek garaia orduan delako. Hala ere, urriaren 31n, azaroaren 1ean eta 2an, maizago egiten zuten

hori, arimak bizidunen artera egun horietan itzultzen zirelako. Eta iluntasunak gaur ez duen presentzia izanda, baratzeko fruituak beldur izugarria sortzen zuen. Festa eta erritua baino bihurrikeria zen, jolasa. Lehen kalabaza arima izan zitekeen, elementu beldurgarria kandelaren dirdirarekin farolik ez zen lurraldean. Gaur festaren sinboloa da kalabaza, urteko hamargarren hilabetearen sinboloa. Sinbolo kondentsatua da, hainbatenzat Estatu Batuetako kultura eta balioen ikurra, beste askorentzat kontsumismoaren eta kolonialismoaren bandera. Testuinguru sinboliko horretan eskuak burura eramaten ditugu kalabazek jolas haiek egungo haurren aitona-amonak eta birraitona-amonak ahotik entzutean. Isildu zen, eta ia galdu, transmisioa moztuta. Agertu da hala ere, batez ere, haur eta gazteak Halloween ospatzen hasi direnetik, Eibarko haur batzuk argi adierazi ziguten: «ospatu nahi genuen, eta egin egiten dugu».

Europako beste hainbat tokitan bezala, hemen ere tentsioa sortu du festa hau ospatzeak, eta behin aurreko belaunaldien ohiturak ezagututa, festa berria sortu da: Gau Beltza. Hainbat herritan izen horrekin ospatzen den jaiaren elementu desberdinak nahastuta agertzen zaizkigu eta duela hamarkada batzuetako bertako adinekoen kalabazek erabilerari aipu egiten zaio «berreskurapen» ideiarekin, nahiz eta berria edo asmatua den Hobsbawm-ek tradizioaren inguruan egindako teorizazioarekin lotuta (Hobsbawm eta Ranger, 2002). Tradizio asmatua da honenbestez, baina oso eraginkorra, gaurko testuingurura ongi moldatzen jakin duelako. Helduek antolakuntzan parte hartzen dute, baina haurrek izaten dute protagonismoa. Hala ere, herri bakoitzaren forma, edukia eta parte-hartze modua ezberdina da. Jai honek elementu oso erakarga-

rriak ditu: iluntasunean ospatzen da, askotan haurrak lagunartean ordu horietan irteten diren lehenengo aldia izaten da, goxokiak jateko aukera ematen du, mozorrotzeko beste egun bat bilakatzen da, lagunekin egiten da, eta azkenik, susto edo beldurraren tentsio puntu hori gehitzen zaio.

Eta badu beste osagai garrantzitsu bat ere: heriotzaren presentzia. Beti ez da heriotza aipatzen, baina agertzen da. Mozorroetan heriotza islatzen da askotan, zuriz margoturiko aurpegi batek, hildakoaren itxura hartzen duelako. Ganbaratik harturiko edozein mozorro beldurgarri bilakatzen da aurpegia margotzearekin soilik, kontsumismoaren inguruko diskurtso asko zalantzan jarriaz. Aurpegia margotuta, haurrak hildakoa gorpuzten dute, eta horrek eztabaida dakar, handia ala txikia, interpelazio bat baita. Herri batzuetako jaietan heriotza saihesten saiatzen badira ere, beste zenbaitetan heriotza lantzeko aprobeztatzen dute, haren inguruko ipuin kontaketak, hitzaldiak edo bestelako lanketak burutuaz, edota, ospakizunean bertan, antzezpen edo performance desberdinen bitartez. Gau Beltza sortzen ari da, beraz, kalabazari beste dimentsio bat emanaz, heriotzarekin beste modu batera erlazionatzeko aukerari atea irekiz.

Heriotzarekin eta hildakoekin harremana berreraikitze edo birdefinitzen laguntzeko jaiak

Urriaren 31n ospakizunak sortzen ari dira Euskal Herriko kaleetan eta jai berri haueetan heriotza nolabait agertzen da mozorro eta antzezpenetan. Baina, era berean, ikerketan jaso ahal izan dugu heriotza oso ikusgai zen testuinguru batetik beldurrez begiratzen zaion gizarte batera pasa garela, non

heriotza bera ukatu eta ezkutatu egiten den, hitza beraren aipamena eragotziz, ikusezin eta tabu bilakatu arte. Entzun eta ikusi dugunaren arabera, egungo isiltasun eta tabua areagotu egiten da haurrekin; ez da lasaitasunez jorratu daitekeen gaia, urduritasuna eta deserosotasuna sortzen du. Hori da jaso duguna, eta hau da jasoketa horren ondorioz buruan bueltaka izan dugun galdera: erabil al daitezke jai hauek heriotzarekin eta hildakoekin hemen eta orain (ez) dugun harremana berreraikitze edo birdefinitzen laguntzeko?

XX. mendean egindako euskal etnografietan heriotza-errituak jasotzeak garrantzia izan zuen. Etniker taldeak egindako *Ritos Funerarios en Vasconia* izeneko bilduman (batzuen artean, 1995b: 672) «gure arbasoak modu batean edo bestean hildakoekin ‘bizi’ zirela») jaso zutela diote. Lan etnografiko hauetako testigantzetan, hildakoak argi itxurarekin agertzen dira. Arimaren materializazioa argia da, eta arimen izendapenak ere argiarekin lotura dute: argi-egileak, argiak, argidunak, argileak... Heriotza ikusgai zen argiaren sinboloaren bidez. Baina etnografia lan horiek burutu ziren urteetan adierazpen sinboliko horiek desagertzen ari ziren. Zuberoko Barkoxe herriko gizon baten hitz hauek oso adierazgarriak dira: «le signe a disparu, mais on’a pas trouvé mieux...» (batzuen artean, 1995b: 458). Sinboloa desagertu zen, baina ez dugu ezer hobeagorik topatu... Heriotza-errituekin ere antzera gertatu dela iruditzen zaigu. Hildakoak agurtzeko eta ondoren eurekin harremana mantentzeko errituak, kristautasunak mendeetan zehar zehaztutakoak, desagertzen ari dira, baina kosta egiten zaigu horien ordezkioak topatzea. Gure ustez, bilaketa horretan Gau Beltza edo Arimen Gauda bezalako jai berriek aukera eman dezakete heriotza eta beldurra

esperientzia sozial, kolektibo eta partekatu gisa bizitzeko, urteko egutegian hildakoen gurtzarekin lotutako egunak izateak oinarri sendoa ematen baitute.

Azken urteetan, Euskal Herrian Gau Beltza festen inguruan eman eta ematen den debatea batez ere ardatz honen inguruan izaten da: bertakoa versus kanpokoa. Gurasoen eta bestelako helduen kezka da haurrek «amerikarra» omen den festa bat ospatzen ari direla. «Bertako» ohitura ez den zerbait ospatzen hasi garela eta «kanpokoa» den hori kapitalismoaren ideologiaz blai datorrela: kontsumismoa sustatzen duen jaia delako (mozorroak eta apaingarriak erostea) eta Estatu Batuetako kultur produkzio handiak sustatzen direlako (filmak, telebista programak).

Baina, ospakizun berri hauen inguruko eztabaidetan ez dira beste eztabaida batzuk kontuan hartzen: jaiak ospatzeko adinaren arteko botere-harremanek zein eragin duten edo genero botere-harremanak nolakoak diren jai forma hauetan, adibidez. Gure ustez funtsezkoa bada ere, debate hauetan agertzen ez den beste elementu bat heriotza da. Heriotzaren presentzia ala ausentzia ez da arazo gisa ikusten eta, beharbada, festa hauetan kapitalismoaren presentzia nabarmenen doa heriotza nola tratatzen den aztertzen dugunean. Kontsumo-jendartearen ametsa beti gazte eta kontsumitzaile gisa bizitzea da eta, ondorioz, heriotzak ez du tokirik amets horretan. Horregatik, heriotzari bizkar emanda bizi behar dugu. Ondorioz, nolabait heriotza beste batzuen esku uzten dugu.

China Miéville idazleak dio hildakoekin harremana izateko dugun modua edo ditugun moduak ere egungo nekropolitika liberalaren parte direla, eta Halloween festa eskuindarren jolas toki gogokoena bihurtu dela (Miéville, 2013). Paradogikoa da, jatorriz heriotzaren inguruan eraiki ziren festa

«berritu» hauen joera heriotza ahalik eta gutxien agertzea edo oso modu lausoan agertzea izatea. Guk egindako ikerketan hala jaso genuen, adibidez, azken urteetan herri mailan arrakasta handiz horrelako festa bat antolatzen aritzen den emakume honen hitzetan:

Bai, heriotza dago erdi-tabu... Guk hemen ez dugu lotzen, arima gaua ere, izen hori... arima? Gaua lotuko dugu arimarekin? Heriotzarekin? Eta erabaki genuen Gau Beltza; ez dugu heriotza aipatzen ezertarako...

Herriko haur askok parte hartzen dute jai kolektibo horietan heriotza eta hildakoak ez aipatzea kontraesankorra gerta daiteke. John Berger idazleak idatzi zuen ez dagoela kolektibitate hildakorik gabe:

Kapitalismoak jendartea deshumanizatu artean, bizidun guztiek hildakoen esperientzia igurikitzen zuten. Bere azken etorkizuna ziren. Beren horretan bizidunak osagabeak ziren. Honela hildakoak eta bizidunak elkarren mendekoak izaten ziren. Beti. Soilik norberkeria-mota moderno bakar batek elkarren mendekotasun hau apurtu du. Ondorioak hondagarriak izan dira bizidunentzat, zeinak hildakoak desagertu direlakoan dauden egun (Berger, 2007: 77).

Azken hamarkadetan eskaintzen zaigun indibidualismo muturrekoari aurre egiteko kolektibitatea aldarrikatzea interesgarria izan daitekeela uste dugu, garbi dugulako gizakiok harreman egonkorak eta sendoak behar ditugula bizitzari aurre egiteko. Femenismoak proposatzen duen zaintza kolektiboa beharrezkoa dugu lanak, eguneroko bizitzak edo gaixotasunak sortzen duen sufrimenduari aurre egiteko. Kolektibitatea eta zaintza kolektibo hori ere oso garrantzitsua da heriotzak sortzen digun sufrimenduari

aurre egiteko eta, gure iritziz, horri begira heriotza-errituak garrantzitsuak dira, baita heriotzaren inguruan antolatzen diren ospakizunak ere: hildakoak gogoratzeko eta hildakoekin harremanetan jartzeko egiten diren jaiak beharrezkoak ditugu.

Euskal Herriko jaien inguruan lana egin duten antropologoekin bat egiten dugu (Aizpea Leizaola, Maggie Bullen, Beatriz Moral) festak ez direla parentesi hutsa baizik eta pil-pilean eduki sinboliko kondentsatuak, emozio sakon eta komunitate gauza jakinen ezaugarriak nabarmen islatzen eta bideratzen dituzten uneak baizik. Miren Guilló antropologoaren hitzetan:

Festaren gorputz-memoriaren alaitasuna, norbanakoa nahiz kolektiboa, osagai nagusia

izaten da maiz: afektuak, aliantzak, konplizitateak, irribarreak eta dantza. Subertsioz eta plazerez chundutako harremanak eta gorputzak gara festetan. Baina festa, negarra begitik daraman tenpesta izateaz gain, min eta negarrerako parada ere bada. Hauxe paradoxa. Izan ere, festa ez da sozietatetik aparte dagoen zerbait, sozietaterik gabe ez baitago festarik. Pozaz gain, gatazkak eta minak ere azaleratu, nahastu edota irudikatu egiten dira festetan. Kultur (sistemen) adierazpen ahaltsuak direnez gero, jendarte, herri, talde edota komunitate jakinen ezaugarri guztiak islatzen dira haietan (Guilló, 2016: 7).

Horregatik aldarrikatu nahi dugu heriotzaren inguruko jai berri hauetan heriotza presente egon behar dela. Ez bakarrik presente, baizik eta erdigunean egon behar due-

Baliarraingo Gau Beltza. Egilea: Josu Ozaita (2018-10-31).



la. Hildakoekin harremanetan jartzeko aukera ezin hobea direlako, haurren ekimenez sortzen ari diren jai berriak hauek heriotza eta beldurra esperientzia sozial, kolektibo eta partekatu gisa bizitzeko aukera eman dezaketelako.

Azken hamarkadetan, Halloween izeneko festa ospatzeko modu berriak eta kapitalistari aurre egiteko erresistentzia dinamika oso interesgarriak aktibatuta dira. Gure ustez, hemendik aurrera erresistentzia dinamika horiek erritual berrien sormenerako dinamika bihurtu behar ditugu eta heriotzaren elementuak festa hauen oinarri-oinarrian egon behar dute.

Trick or treat! Trikimailua ala tratua, talka ala ituna... planteatzen da Halloween jaian. Guk, ordea, bateraezinak diren jokoak baino bateragarriak direnak bilatzea proposatzen dugu: *trick and treat*, trikimailua eta tratua, talka eta ituna... Kristautasuna eta kapitalismoa oso abilak izan dira horrelako jokoetan: zenbait gauzak hartu, beste batzuk moldatu, egokitu, kendu... Guk ere horretan aritu beharko dugu:

Itzalitako kalabazak berriz pizteko

Itzalitako arimak berriz pizteko

Hildakoekin eta heriotzarekin itzalitako harremanak modu kolektiboan berriz pizteko.

Bibliografia

- ARANA, Anuntxi (2004) «Jaietako eskeen erredundantziaren zentzua», *Eusko Ikaskuntza*, 51: 221-238.
- BARRERA, Margarita (2003) *Halloween: su proyección en la sociedad estadounidense*, Madril, Universidad Complutense de Madrid.
- BATZUEN ARTEAN (1995a) *Pirinioak eta Euskal Herria: mitoak eta sineskizunak*, Gaiak.
- BATZUEN ARTEAN (1995b) *Ritos funerarios en Vasconia*, Etniker Euskal Herria.
- BERGER, John (2007) «Twelve theses on the economy of the dead», *Left Curve*, 31: 77 [itzulpena: Aiestaran, Ignazio (2017) «John Berger bizikide hildakoen ekonomian», *Argia*].
- CARO BAROJA, Julio (1986) *Estudios vascos IV: de la vida rural vasca*, Txertoa.
- CAYCEDO, Martha (2007) «La muerte en la cultura occidental: antropología de la muerte», *Revista Colombiana de Psiquiatría*, XXXVI (2): 332-339.
- DOUGLAS, William (2003) *Muerte en Murelaga*, Alberdania.
- ETXEBARRIA, Juan Manuel (2003) *Euskal urtea ohituraz bete*, Ibaizabal.
- FOLEY, Malcolm eta O'DONNELL, Hugh (ed.) (2009) *Treat or Trick? Halloween in a Globalizing World*, Cambridge Scholar Publishing.
- FRAZER, James (1995) *Urrezko abarra*, Klasikoak bilduma, Euskal Herriko Unibertsitatea.
- GUILLÓ, Miren (2016) *Festak, genero-barremanak eta feminismoa. Begirada teoriko eta antropologikoak, praktika sortzaileak eta plazeraren kudeaketa kolektiboak*, Udako Euskal Unibertsitatea.
- HOBSBAWM, Eric eta RANGER, Terence (2002) *La invención de la tradición*, Crítica.
- LHERM, Adrien (1998) «Les enjeux sociaux du rite: l'exemple de la fête d'Halloween», *Hypothèses*, 1 (1).
- MARTIN, Itxaso (2016) *Eromena, azpimemoria eta isiltasun(a)k idazten: hutsune biburtutako emakumeak garaiko giza-artearen eta moralaren ispilu* [tesi doktoralala], Euskal Herriko Unibertsitatea.
- MIÉVILLE, China (2013) «Marxismo y Halloween», <<https://vimeo.com/110586899>>.
- ROGERS, Nicholas (2002) *Halloween: From Pagan Ritual to Party Night*, Oxford University Press.
- TURNER, Bryan (2011) *Religion and Modern Society: Citizenship, Secularisation and the State*, Cambridge University.

Resumen: En el presente artículo, reflexionamos sobre el fenómeno de la muerte desde una prisma social y cultural, mediante el estudio de unas celebraciones en las que la muerte es un elemento central: las fiestas del 31 de octubre, denominadas Gau Beltza, Arimen Gaua o Halloween, que son protagonizadas por niños, niñas y adolescentes. La oscuridad, el miedo y la muerte están muy presentes en estas celebraciones, y estos elementos resultan muy atractivos para las y los jóvenes participantes. Teniendo en cuenta estos componentes, queremos proponer que, mediante estas fiestas, se puede crear una experiencia colectiva y compartida de la muerte y el miedo, ya que la relación que en la sociedad actual tenemos (o no tenemos) con el hecho de la muerte puede ser parte de la actual necrotanato-política neoliberal. Replantearnos y re-crear estas fiestas y rituales pueden ser un modo de enfrentarnos a dichas políticas.

Palabras clave: Muerte, Halloween, etnografía de la infancia y de la adolescencia, fiestas.

Abstract: This paper aims to comment on the phenomenon of death with a social and cultural prism through the study of celebrations in which death is a central element: the festi-

vals of October 31st called Gau Beltza, Arimen Gaua or Halloween in the Basque Country. We immersed ourselves in these festivals using ethnographic techniques and we saw that darkness, fear and death are very present in these celebrations. These elements are very attractive for children and adolescents and we think that these parties could create a new collective and shared experience of death and fear, since the relationship that in today's society we have (or do not have) with the fact of death, can be part of the current necro-neoliberal politics. Rethinking and re-creating these festivals and rituals could be a way to confront these policies.

Keywords: Death, Halloween, ethnography studies of childhood and adolescence, festive seasons.